

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa (2016-2019) Partaidetza Prozesua

Bilera-mota	Lurralde-bilera
Eguna	2016-10-27
Ordua	17:00-19:00
Lekua	Tutera, Rua gizarte etxea

Bertaratutakoak	
Teresa Rosano Mateo (LAB sindikatua)	Gustavo Gil (Tuterako zinegotzia)
Jose Mari Blanzako Sesma (Beterri elkarte)	Daniel Lopez Moreno (herritarra)
Patricia Lorente Sevilla (Tutera kantuz)	Mikel Ziordia (herritarra)
Jose Suárez Benito (Tuterako zinegotzia)	Iñaki Bakero (AEK)
Marisa Marqués Rodríguez (Tuterako zinegotzia)	Argiñe Korta Aranburu (Argia Ikastola)
Eneko Larrarte (Tuterako Alkatea)	Juan Ramon Lacalzada Pastor (LAB sindikatua)
Raul Prieto (Griseras eskola publikoa)	

Euskarabidetik: Ander Irizar eta Kontxi Del Rio

Elhuyarretik: Jon Abril

Gai zerrenda
- Ongietorria - Elkar ezagutzea - Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztea - Lanketa: talde-lana - Balorazioa eta agurra

Bileran egindakoa

Tuterako Alkateak, Eneko Larrartek, ongi etorria egin du eta elkar ezagutzeko izen-erronda bat egin dugu. Ander Irizarrek, Euskarabideko zerbitzuburuak, Plan Estrategikoaren prozesuaren nondik norakoak eta Planaren markoa azaldu ditu eta ondoren, Elhuyarreko teknikaria den Jon Abrili eman dio hitza, planaren helburuak aurkezteko. Aurkezpena egin bitartean, parte-hartzaileek lanketa-fitxa izan dute eskuartean oharrak jasotzeko. Lanketa-fitxak honakoa jasotzen zuen: *Erantsiko nuke.../ Zalantza eragiten dit.*

Aurkezpenaren ondoren, talde txikiak egin ditugu eta galdera hauen inguruan jardun dugu lanean:

- Zerbait erantsiko zenuke? Zerbait faltan bota duzue?
- Zerbaitek zalantza eragin dizue?



Ondoren, talde handian konpartitu dugu talde txikietan hausnartutakoa.

Saioa bukatzeko, balorazioa egin dugu eta hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu ditugu.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Erantsitakoak edo azpimarratzekoak diren alderdiak:

- Eremu ez-euskaldunean pedagogia handiz jokatu behar da euskararen normalizazioaren gaian, inposaketarik gabe jokatzuz.
- Euskarabideak Udalei ematen dizkien diru-laguntzen publizitate handiagoa behar da.
- Plan Estrategikoan eremu ez-euskaldunean euskara sustatzeko dagoeneko egiten diren ekintzak txertatu beharko lirateke, eta horiek indar handiagoz diruz lagundu (AEK, ikastolak, Errigora...).
- Helduen euskalduntzean CEBA erreferentziatzat hartu beharko litzateke (atzeritarrentzako gaztelania, ingelesa, frantsesa... dohainik dira), Erribera osorako.
- Euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan. Legea aldatu.
- Erreprimitutako eremuetan diskriminazio positiboak jokatu.
- Haur eta gazteen aisialdia indartu.



- NUPeko ikasle euskaldunak (fisioterapia eta ingeniaritza) euskararen aldeko jardueretarako baliatu beharko lirateke.
- A eta D ereduetara diru gehiago bideratu.
- Euskara irakasleak denbora luzeagoan Erriberan gera daitezen neurriak hartu.
- NUP, UNED, Tuterako Udala eta eragile sozialak inplikatu euskararen prestigioaren gizarteratzean, urtero jardunaldi batzuk elkarrekin antolatuz.
- Motibazioa galtzea eragiten duten elementuen gainean azterketa egin eta hausnartu.
- Lurraldea: Tuterak "hiriburutza-karta" antzeko bat izanen balu, zenbait zerbitzu zentralizatu ahal izanen lirateke, horien artean, euskara.

- Hizkuntzek harremana duten eremu osasuntsuak bultzatu.
- Euskarak gehitu egiten duela eta ez kendu; osatu egiten duela, eta ez duela liskarrik eragiten; bakarrak eta unibertsalak egiten gaituenaren diskurtsoa indartu behar da.
- Hezkuntzan euskara eta euskal kulturarekin zerikusia duten oinarrizko edukiak txertatu.
- Euskara herritarrei arrotza eginen ez zaien kontua izateko ekintzak bideratu.
- Erriberaren berariazkotasuna kontuan hartu. Plan Estrategikoaren baitan Erriberarako plan zehatzago bat jaso beharko litzateke.
- Arnasguneak bezala, Eredu guneak sortu, normalizazioaren bidean eredugarriak diren udalerri ez-euskaldunak, gizarteari lortutako emaitzak agerian jarritz, eta beste udalerri batzuentzat eredu izango direnak.
- Derrigorrezko irakaskuntzaren doakotasuna D ereduan, dagoeneko badauden azpiegiturak aprobetxatuz, eta ez bikoiztuz (dauden ikastolak baliatuz).
- Lanbide Heziketa euskaraz Erriberan edo eremu ez-euskaldunetan.
- Toki-administrazioen langileen euskalduntzerako trebakuntza planak (Foru Administrazioen langileen eredu, gutxienez, udaletarako).
- Administrazio publikoa eredugarri egin, eta prozesu guztietan euskararen ezagutza baremazioan txertatu.
- Kartelak, dokumentazio ofiziala, eta abar, bi hizkuntzetan egotea bermatu.
- LHko 6. Mailatik DBHrako aldaketan A ereduko ikasleen ibilbidea aztertu (ikasle askoren galera, G eredura pasatzen dira).
- Euskara prestigioatu, eskaria sortzeko eta poliki-poliki administrazio elebiduna eremu ez euskaldunetan zabaltzeko.



Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Zalantza eragiten duten alderdiak:

- Zein estrategia garatuko da kontrako zein aldeko jarrerarik ez duten toki entitateekin?
- Nola egingo dira partaide toki entitateak modu eraginkor batean, pasotismo burokratikotik ihes eginaraziz? Plana egun bateko lore izan ez dadin neurriak hartu.
- Behin betiko txostena loteslea izanen da?
- Egoera soziolinguistikoa ez al da aitzakiatzat hartzen?
- Hitzun berrien atalean indar gehiegi jartzen da haurrengan.
- Hizkuntza-markoa eraiki daiteke Vascuencearen Legea aldatu gabe?
- D ereduaren aldeko kanpainan ekimen soziala parte egin (Argia ikastola).
- Euskararen aldeko jarrera on honek urteak eta legegintzaldiak iraun ditzala.
- Zeharkako legeekin elkartu. Araudi bat onartzerakoan beste batek oztopoak eragin ditzakeela aintzat hartu.
- Hizkuntza-eskubideak edukitzeak, zein betebeharrak ditu?

Bileraren balorazioa

Bakoitzak hitz batez baloratu du saioa eta saioan landutakoa:

- Bazen garaia!
- Zerbait egin dadila
- Hasiera
- Jarraitu
- Positiboa
- Borrokalariak
- Zalantza
- Usb (berriz konektatu)

Eta saioaren balorazioa orokorra egiteko, balorazio-orria bete dute. Hona emaitza:

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA (lurralde-bilerak)

BALORAZIOA				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA		4	3	2
GAIAK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT		1	2	6
BILERAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA		1	7	1
BILERA AURRETIK JASOTAKO INFORMAZIO NAHIKOA IZAN DA		4	2	3
GIROA ATSEGINA IZAN DA			1	8
PLAN ESTRATEGIKORAKO EKARPEN INTERESGARRIAK EGIN DIRA			4	4
GAUZA BERRIAK IKASI DITUT		2	7	
BILERAN PARTE-HARTZEAK AURRERA BEGIRAKO URRATSETARAKO MOTIBATU EGIN NAU			5	3
HARREMAN ETA SARE BERRIAK ERAIKI DIRA		3	6	
BILERAN PARTE HARTZEAK ASETU NAU	1		4	4

EGIN NAHI DITUZUN OHARRAK:

- PPko zinegotzia bertaratu izana eskertzekoa da
- Bileraren berri ez da behar bezala zabaldu
- Bilera motza izan da, denbora gutxi izan dugu hitz egiteko
- Udal ordezkarien falta